

## Bildu Hernani EA eta EAJko Udal ordezkarietkin bildu da eta "borondate politiko haundiagoa" eskatu du

■ "Hauteskundeetako emaitzak errespetatzea" eskatu du Bildu Hernanik ■ EA eta EAJko Udal ordezkarien lehen erantzunak ez diela balio esan dute, baina, aukera bat eman nahi diote saiakera honi.

BILDU Hernani plataformak Joxan Rekondo Alkatearekin bilera izatea eskatu zuen eta azaroaren 10ean bildu ziren Alkatea bera eta EAko eta EAJko 3 zinegotziekin, plataformak prentsaurrean azaldu duenez. Udal ordezkari emandako eskakizun orria erregistrotik ere pasa du plataformak eta maiatzaren 25eko hauteskundeetan botoz legozkiokoen zazpi zinegotziengatik "eskubide guztia" eskatu dituzte.

### Parte hartze zuzena

Zinegotzi moduan aritzeko eskubide politikoa eskatu du Bildu Hernanik, Udal organoetan eta erabakietan parte hartzeko eskubidea eta horretarako beharrezko den informazioa jasotzeko eskubidea: "bilera guztien deialdiak jasotzea, akten kopia jasotzea, espedienteetara jotzeko eskubidea, udal teknikariei aholkua esatzeko eskubidea eta erregistrotik pasatzen diren agirien kopia izateko eskubidea". Udaletxez gaineko organoetan erabakiz parte hartzeko eskubidea ere eskatu du



**Bildu Hernaniko ordezkariak Udaletxe aurrean, joan den asteazkeneko prentsurrekoan.**

plataformak eta "Udal azpiegiturak erabiltzeko eskubidea, hautetsiei dagozkien erreibituzio ekonomikoak jasotzeko eskubidea eta proposamenak egiteko eskubidea".

**"Erantzunak ez digu balio"**  
Bildu Hernanik asteazkenean prentsurrean azaldu zuenez Udal ordezkariengandik jasotako erantzunak ez die

balio "edozein herritarren eskubideak izango ditugula esan baitute eta ez herriak aukeratutako zinegotziei dagozkigun eskubideak". Bildu Hernanik esan du EA eta EAJk diotela legez kanpo dagoena ezin dela eskatu eta borondate politiko gutxi ikusten du plataformak gaur egungo egoerari irtenbidea bilatzeko. Hala ere, saiakera

honi aukera bat eman nahi diola esan du Bildu Hernanik eta erantzunaren zai geldituko direla "behingoz, legearen ondorioz lortutako errentabilitate politikoak alde batera utzi eta injustiziaren aurrean borondate politikoa eta ekintza politikoa nagusitzea ea posible egiten duten Hernaniko EA eta EAJkoek". □

## Skate pista bat egitea eskatzeko firma biltzen

HERNANIN bada skate edo patinetean ibiltzen den koadrila dezentea. Beren hitzetan 30 bat badira ibiltzen direnak eta umetan ere asko dira ikasten ari direnak. Lehengo urteak ezkerro, Hernanin skateko pista egitea eskatzen ari dira, Donostian Amaran dagoenaren antzekoa. Dagoeneko Udal ordezkari-kin hitz egin du gazte koadrila honek eta beren hitzetan 1.300 firma biltzeko eskatu diete eta aurrerago hitz egitekotan gelditu dira berriz ere. Patinete zaleak ikastetxetara, kirolegira, dendetara, Udaletxera, feriara, Biterira eta ahalik eta leku gehienetara joateko asmoa dute eta martxora arte exibizioak egiteko asmoa ere badutela esan diote Kronikari. □



**Skatean ibiltzen den koadrilako zenbait, beren patinetarekin.**

**Iñigo Royo Manterola**  
Kiromasia Naturopatia  
Reflexología Homeopatía  
Auriculoterapia Iridología  
Arazo neurologiko eta  
bizkar hezurrekoen konpontzea  
Sta. Barbara 42 - 2.esk. - 626 807 633

**AMARIA  
ARRANDEGI**  
ARROZINAK  
ITSASKIAK  
FRESKO ETA  
IZOTZUA  
Kardaberaz 34  
Tel.: 943 55 07 52  
943 55 22 11  
20120 Hernani

**ADARRA**  
ETXE TRESNAK S.A.  
Txirrita kalea 11  
Tel. 943 55 04 27  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
  
**PROKOLOR ZENTRUA**  
**Landaribar, s.l.**  
Pintalakuko ekipoak  
Industriala dekorazioetako pinturak  
Pintalakuko paperak  
Kardaberaz 45 - Tel.: 943 55 21 31 - Hernani

**Ibai-mendi**  
Marka onenak  
dauzagu:  
TRANGO  
TERNUA  
COLUMBIA  
THE NORTH  
FACE  
SALOMON  
BOREAL  
TUCKLAND  
KAMET  
CHIRUCA  
Nafar kalea 24 - 943 333724 - Hernani / Nagusia 18 - 943 590372 - Andoain

## 'Inaxitoren ametsak' antzerkia bihar Nafarroa Oinezen alde

DOBERA Euskara Elkarteak antolatuta, Inaxitoren ametsak antzerkia izango da datorren larunbatean, Sandiusterriko aretoan. Antzerkia 6-12 urte bitarteko umeentzako dago egina, eta Inaxitok munduan barrena izandako (ametsetan egindako) ibilerak kontatzen ditu. Antzerkia, bihar 18:00etan da Sandiusterriren eta sarrerak salgai daude Lete liburu dendent eta Doberan, 5 eurotan. Ateratzen den dirua Iruberriko Arangoiti ikastolarentzako izango da. □

### Juan Mari Olano estraditatu egin dute

JUAN Mari Olano, Amnistiaaren aldeko Mugimenduko bozeramaile zena, atzo estraditatu zuen Frantziako gobernuak Madrilera. Askatasuna erakundeak jakitera eman dunez Soto del Real espetxeen sartoko dute eta astelehenean pasako da epailearen aurretik seguruenera. □

### Etxeratek enkartelada

ETXERAT elkarrean enkartelada deitu du gaurko errepresaliatuak Euskadin bizitzeko duten eskubidea aldarrikatzeko. Enkartelada, Gudarien plazatik aterako da 20:00etan. Etxeratek herritar guztiak eskatu die aldarrikapen horrekin bat egiteko.

Bestalde, Etxeratek adierazi du Kuotakide kanpaina aurrera dijitala eta gaur ere mahaia jarrita egongo dela plazan. □

### BITERIKO ZINEA

#### Bi pelikula asteburuan

BI pelikulak botako dituzte asteburuan Biterin. Helduentzat *Under world* pelikula, gaur 22:30etan; bihar, 19:30 eta 22:30etan; eta igandean 19:30etan. Umeentzat *Super agente Cody Banks*, bihar eta etzi arratsaldeko 17:00etan. □

## Udaletxeko langileek bajak jornada erdika hartzeko aukera izango dute, familiakoen gaixotasun larriengatik

■ Iaz onartutako akordioa osatu du Udalak ■ Erabakia atzoko Plenoan onartu zen ■ Mari Jose Sanchezek (EB-IU) utzi egin du zinegotzi kargua.

ATZOKO Plenoak Udaletxeko lan konbenioa hobetzeko proposamena onartu zuen. Antton Costak zuzentzen duen sailak egindako proposamenaren arabera, etxeakoen gaixotasun larriengatik langi-

leari dagozkion baja-egunak, jornada erdika hartzeko aukera dute orain Udaletxeko langileek. Proposamena aho batez onartu zen osteguneko Plenoko gainerako puntu guztiek bezalaxe.

Plenoko beste puntuatko bat Mari Jose Sanchez zinegotziaren (EB-IU) dimisio eskaera izan da. Plenoak onartu du dimisioa eta orain eskaria egin behar da Beatriz Fernandinok kargua hartu dezan. □



Fagollagako presan egingo dituzte konponketak eta errioa ertzeko konpuertatik bideratuko da.

## Fagollagako presa konpontzeko baimena eskatu du Fagollaga SA enpresak

■ Pitzatuak itxi eta gainezka egin ez dezan dagoen zuloa itxiko dituzte.

FAGOLLAGAKO presan konponketa lanak egiteko baimena eskatu du Fagollaga SA enpresak. Obra izango litzateke harizko pareta ertzetan dauen pitzatuak ixtea eta presak gainezka egin ez dezan dagoen barruko zuloa seilatzea. Lanak

egiteko errioa bideratuko da ertzeko konpuerta batean barrrena eta modua jarriko da lehorrean lan egin ahal izateko. Kaltetuak izan litzkeenek beren erreklamazioak aurkezteko aukera dute Hernaniko Udaletxean edo Iparraldeko

Konfederazio Hidrografikoan (Uren komisaria, Errrotaburu pasealekua 1-8. 20071 Donostia). Erreklamazioak aurkezten behar dira oharra Gipuzkoako Boletin ofizialean agertu eta hurrengo egunetik (azaroaren 13an) 20 egun baino lehen. □


### ESKOLA KIROLA

Eruugibia	Taldeak	N o n	No i z
Benjam inak	Langile B-Elezto A	Kio Regia	B har 09:15
Benjam inak	Langile B-Urum ea B	Kio Regia	B har 09:15
Benjam inak	Urum ea D-Urum ea A	Kio Regia	B har 09:15
Benjam inak	Urum ea B-Elezto B	Kio Regia	B har 10:00
Benjam inak	Langile A-Langile C	Kio Regia	B har 10:45
Benjam inak	Elezto B-Langile C	Elizabon	B har 11:45
Benjam inak	Langile A-Elezto A	Elizabon	B har 12:00
<b>Putbola</b>			
Infantil neskak	Langile-Langaitz	Zubipe	B har 09:00
<b>Saskibaloia</b>			
A lebin neskak	Belen A-Urum ea	Donostia	
A lebin m utilak	Urum ea A-Elezto B	Kio Regia	B har 11:00
A lebin m utilak	Urum ea B-Elezto A	Kio Regia	B har 11:00

### ASTEBURUKO PARTIDUAK

Saskibaloia	A lebin m utilak	Langile-Urum ea B	Kio Regia	B har 12:00
A lebin neskak	Deutsche S-Langile		Donostian	
<b>Boleibola</b>				
Infantil neskak	Elizabot D B H-Lizeotanak	Kio Regia	B har 11:45	
Infantil neskak	Langile-Zukatz Fortuna	Kio Regia	B har 11:45	
A lebin neskak	Elizabot-Santo Tom as	Donostian		
A lebin m utilak	Langile-Im aculada	Donostian		
<b>Pelota</b>				
A lebin m utilak	Urum ea D-Langile E	Kio Regia	B har 15:00	
A lebin m utilak	Langile B-Elezto A	Kio Regia	B har 15:10	
A lebin m utilak	Langile A-Urum ea A	Kio Regia	B har 15:20	
A lebin m utilak	Elezto B-Txinta	Kio Regia	B har 15:30	
Benjam inak	Langile D-Urum ea B	Kio Regia	B har 15:40	

## MENDIZALE ASTEA



Juanito Oiarzabal asteazkeneko proiektzioa hasi aurrean.

## Argazki lehiaketako sari banaketa egingo da gaur

MENDIZALE Astea aurrera dijoa eta gaur diapositiba lehiaketa izango da. Diapositibak Hernaniko jendeak aurkezten ditu eta sarituak nortzuk diren gaur esango dute, 19:30etatik aurrera, Biteri kultur etxearen.

### Hamalau zortzimilakoak

Asteazkenean Joanito Oiarzabal mendizale gasteiztarraren diapositiba emanaldia izan zen eta Biteriko areto nagusia

bete egin zen. Oiarzabalek 8.000 metrotik gorako mendi guztiek igo ditu eta banan bana mendi guztietako espedizioetako diapositibak bota zituen eta mendi bakoitzaren inguruko xehetasunak agertu. Galderen txandan, datorren urterako projektuen berri eman zuen eta Ama Dablan, K2 eta Cho Oyu mendiak igotzeko asmoa du, besteak beste.

### HITZ BITAN

#### ✓ GALDUTAKOAK

**Erlojua galdu.** Emakume batek Seiko markako erlojua galdu du Renfeko apeaderotik Iparragirre sagardotegirako bidean. Zilar koloreko da. Ezeren berririk duenak: 943 330200. □

### IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Ajuste neurologiko eta bertebrales, naturoterapia, masajea, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33

Pertsona bat behar dugu haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. 2 egunetan bertan egin beharko luke lo: 943 55 64 39 (20:00etatik 22:00etara deitu).

Pisua salgai zentroan: 3 habitazio, kalefazioa eta balkoi haundia. 943 21 99 27

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzainaingoa: 943 333288
- DYB: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

#### + FARMAZIAK

- Egunez: Chucla Kardaberaz 48  
☎ 943 551793
- Gaeuz: Zatarain Andoain. Arteta z/g  
☎ 943 290802

**Inaxitoren ametsak**  
ANTZERKIA

**Sandiusterri aretoan**  
Azaroak 15, larunbata  
Ordua: 18:00etan

6-12 urte bitarteko haurrentzat egokia.

**NAFARROA OINEZ-en alde**

**PREZIOA:** 5 euro

**Sarrerak salgai:** Leten eta Doberan

Antolatzialdea:  
Dobera Euskara Elkarte

**TRIKUHARRI TALDEA**

**Hernaniko Kronikako laguntzaile izan nahi?**

Urtean 30 eurogatik egunero krónika dohainik

Telefonoz hartuko dizkizugu datu guztiak:

**943 330899 - 656 703814**

Bonoa zeuk bete nahi baduzu, jaso leku hauetan: Conde (Urbia), Zinkoenea, Iruretagoiena (Kale Nagusia), Kronika (Larramendi 11) eta Dobera (Larramendi 11)